

2015eko EKAINAREN 13an UDALA ERATZEKO EGINDAKO BILKURAREN AKTA

Zarauzko Udaletxeko batzar-aretoan, 2015eko ekainaren 13ko goizeko 10:00etan honako zinegotzi hautetsi hauek bildu dira, lehenengo deialdian, joan zen maiatzaren 24an egindako Udal Hauteskundeetan hautatuak izan ondoren.

Bertaratutako zinegotzi hautetsiak:

EUZKO ALDERDI JELTZALEA - PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ-PNV)
alderditik:

Xabier Txurruka Fernandez jn.
Maite Garrastazu Aranguren and.
Jesus Arana Gomez jn.
Nekane Iribar Iriondo and.
Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.
Imanol Lasa Ceberio jn.
Iban San Martin Hernandez jn.
Miren Letamendia Belloso and.
Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn.
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.

EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) koaliziotik:

Mikel Goenaga Gubia jn.
Naiara Carvajal Larrañaga and.
Iñaki Eizagirre Eizagirre jn.
Karmele Alberdi Linazasoro and.
Aitor Korta Etxabe jn.
Xabier Vazquez Izquierdo jn.
Ane Arruti Lopetegi and.

PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE) (PSE-EE (PSOE))
alderditik:

Gloria Vazquez Herranz and.
Pablo Garcia Astrain jn.

IRABAZI - GANAR ZARAUTZ (EZKER ANITZA-IU, EQUO, ALTERNATIVA REPUBLICANA,
INDEPENDIENTES) koaliziotik:

Ana De Benito Sanz and.
Oihane Delgado Pita and.

Ines Diaz de Villafranca Arzamendi idazkaria, Udaleko idazkaria dena, bilkurara bertaratu da, eta ekitaldiaren fede eman du.

Idazkariak irakurri du jarraitu beharreko prozedurari buruz berak egindako txosten juridikoa, eta, halaber, adierazi du Udalbatza eratzea dela bilkura honen xedea; hori guztia, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzkoak (martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatua), 195.1 artikuluan, eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, 37.1 artikuluan, agindutakoa betetzeko, honako eguneko aztergai hauen arabera:

GAI ZERRENDA

1. Udalbatza eratzea

2. Alkatea hautatzea eta, hala bada, kargua hartzea

Idazkariak bilkurari hasiera eman eta gero, Adinekoen Mahaia osatu da ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde-araubide Orokorrari buruzkoak (martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatua), 195.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Honakoek osatu dute: JESUS ARANA GOMEZ jaunak –adin gehieneko zinegotzi hautetsia den aldetik mahaiburu gisa aritu dena – eta JON ANDONI URDANGARIN URRUTIA jaunak –zinegotzi hautetsi gazteena delako–. Mahaiko idazkaria, berriz, INES DIAZ DE VILLAFRANCA ARZAMENDI Udalbatzako idazkaria izan da.

Mahaiko idazkariak adierazi duenez, alde zuzenetik jada egiaztatu dituzte zinegotzi hautetsien nortasunari buruzko kredentzialak eta Eskualdeko Hauteskunde-batzordeak udaletxe honetara bere garaian bidali zituen ziurtagiriak; eta bat datozela baieztatu dute.

1. UDALBATZA ERATZEA

Kontuan hartuta bilkura honetan zinegotzi hautetsi guztiak bildu direla eta, beraz, legezko gehiengo osoa dagoela, hautetsiek –hauteskunde-legedian legez ezarritako formularen arabera– aurrez hitz eman ondoren, adineko mahaiburuak kargua eman die. Horrenbestez, Udalbatza formalki eratu dela adierazi du.

Ondoren, idazkariak Udalbatzarrari adierazi dio, eta hau jakinean geratu da, zinegotzi hautetsi guztiek ondarezko ondasunen aitortpena egin dutela.

Era berean idazkariak Udalbatzarrari adierazi dio, eta hau jakinean geratu da,

zinegotzi hautetsi guztiek bateraezintasun kausei buruzko eta egiten dituzten jardueri buruzko aitorpena sinatu dutela.

Segidan, idazkariak berak bilkuran dauden zinegotziei aukera eman die, nahi izanez gero, UDAL ONDASUNEN INBENTARIOARI buruz oharren bat egiteko; izan ere, zinegotzi guztiek aldeaz aurretik zeukaten inbentarioaren fotokopia, hura aztertu eta egiaztatzeko; eta ez du inork esku hartu. Hori guztia egin da apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki-araubide arloan indarrean dauden legezko xedapenen testu bategina onartzen duenak, 86. artikuluan, eta ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak, Toki-erakundeen Ondasunei buruzko Erregelamendua onartzen duenak, 32.2 artikuluan, xedatzen dutena betetzeko.

2. ALKATEA HAUTATZEA

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskunde-araubide Orokorrarenak (martxoaren 13ko 8/1991 Lege Organikoak aldatua), 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, idazkariak bilkuran bildutakoei jakitera eman die Udaltzateak eratzeko bilkuran bertan alkatea hautatu behar dutela, agindu horretan ezarritako prozeduraren arabera. Honela da:

- Zerrendaburu diren zinegotzi guztiak izan daitezke hautagai.
- Bertan dauden zinegotzi hautetsi guztiak hautesle dira.
- Ezkutuko boto-txartel baten bidez hautatuko da, bozketa bakarra eginez.
- Botoen legezko gehiengo osoa lortzen duen hautagaia izango da hautatua; beraz, gutxienez 11 boto behar dira.
- Bozketa horretan inork lortzen ez badu gehiengo osoa, udalerrian boto kopururik handiena lortu duen zerrendako buru den zinegotzi hautetsia izango da, automatikoki, alkate. Berdinketa gertatuz gero, bozketa bidez erabakiko da.

Txosten horren ondoren eta gai honi buruz dauden aurrekarietan oinarrituta, ondoko zinegotzi hautetsiak izendatu dituzte alkategai:

- XABIER TXURRUKA FERNANDEZ jn.
EAJ-PNV alderdiko zerrendaburua
- MIKEL GOENAGA GUBIA jn.
HB BILDU koalizioko zerrendaburua
- GLORIA VAZQUEZ HERRANZ and.
PSE-EE (PSOE) alderdiko zerrendaburua

- ANA DE BENITO SANZ and.
IRABAZI ZARAUTZ koalizioko zerrendaburua.

Idazkariak boto-txartel bana eman dio, zuriz, hautesle bakoitzari; eta adierazi dio alkate izateko bere botoa emango dion zinegotziaren izen-abizenak jarri behar dituela bertan.

Behin txartel guztiak jaso eta gero, botoen kontaketa egin da eta mahaiburuak ozen irakurri ditu alkate izateko boto-txartel bakoitzean proposatu den zinegotziaren izen-abizenak, honako emaitzarekin:

| | |
|-------------------------------|---------|
| Xabier Txurruka Fernandez jn. | 10 boto |
| Mikel Goenaga Gubia jn. | 7 boto |
| Ana De Benito Sanz and. | 2 boto |
| Zuriz | 2 boto |

Bozketaren emaitza ikusita, ez du inork lortu gehiengo osoa. Beraz, EAJ-PNV alderdiaren ordezkaria, XABIER TXURRUKA FERNANDEZ hautagai jauna, izango da alkate, bera delako udalerriko herritarren boto gehien eduki dituen zerrendaburua.

Ondoren, XABIER TXURRUKA FERNANDEZ zinegotzi hautatuak Udaleko alkate kargua onartzen duela adierazi du eta, hauteskunde-legeriak ezarritako formularen arabera hitz eman ondoren, kargua eman dion Udalbatzarraren aurrean alkate kargu hori hartu du, indarrean dauden xedapenek ematen dizkioten eskumen, eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Aurrekoa bukatu ondoren, Udalbatza eratzeko ekitaldiari amaiera eman diote goizeko hamaikak hogeitun gutxitan, goiburuan aipatutako lekuan eta egunean; eta nik, idazkaria naizen aldetik, horren guztiaren fede ematen dut.